



Oarsoaldeako Puntu Ilunen Diagnostiko Partehartzailea

Aurkibidea

<i>Aurkezpena</i>	3
<i>Testuingurua</i>	4
<i>Egitasmoaren deskribapena</i>	6
<i>Oarsoaldea: Arazo nagusiak</i>	9
<i>Lezo</i>	12
<i>Errenteria</i>	20
<i>Oiartzun</i>	35
<i>Pasaia</i>	45

Aurkezpena

Lezoko Udalak, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko hartutako konpromisoaren barne, Oarsoaldeako emakumeei segurtasun eza sor diezaieketen puntu ilunak, zona kritikoak identifikatzeko diagnostikoa jarri du martxan. Horretarako, Emakunde eta Oarsoaldeako Garapen Agentziaren laguntzarekin, eta Errenteria, Oiartzun eta Pasaiaiko Udalen kolaborazioarekin, prozesu partehartzaile bat garatu da; helburua eskualdeko emakumeek arriskutsutzat jotzen dituzten edota segurtasun eza edo deserosotasuna sorrarazten duten puntu edo iraganbideak identifikatzea izan da.

Egitasmo hau 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerakoan jasotako mugikortasunari eta segurtasunari dagozkien printzipioekin bat dator:

46. Artikulua - Ingurumena eta etxebizitza

“ Euskal herri-aginteek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”.

Egitasmoa Oarsoaldeako eskualde guztira zabaltzeak xede argi bati erantzuten dio. Eskualdeko proiektu batek udalerrri desberdinen hausnarketa partekatua sortu dezakeela ulertu da, eskualdeko jarduera eta dinamika bultzatzeko balio dezakeena. Beharrezkoa ikusten dugu hau, kontuan izaten baduga udalerrrien arteko hurbiltasuna eta baita barne mugikortasuna ere; Lezoko emakumeak beste udalerrrietara joaten dira lanera, ikastera eta asialdiko denboran eta horregatik segurtasuna/seguratasun ezaren espazioa ikuspegi zabal batekin aztertzearen beharra ikusi da.

Zentzu honetan, eskualdeko udalen laguntza ezinbestekoa izan da egitasmoa aurrera eramateko.

Testuingurua

Hiri debekatuaren mapen lanketak Kanadan ditu bere aurrekaririk argienak 1980ko hamarkadan. Momentu horretan hasiko dira gorpuzten hiri esparrua emakumeen ikuspegitik era publiko eta kolektiboan problematizatzen duten ekimen desberdinak. Hala nola, 1981eko irailaren 18an, Regroupement québécois des CALACS (Sexu erasoen kontra laguntza eta borrokarako Quebequeko zentroen elkartzea) bortxaketen aurkako Kanada eta Estatu Batuetako hainbat elkarterekin batera, milaka emakume atera ziren kalera 31 hiri baino gehiagotan “La rue la nuit femmes sans peur” (Gauean emakumeak kalean beldur barik).

Ekimen hauek esparru publikoan izaten diren indarkeriak agerian jartzen dituzten ekintzen hazia izateaz gain, historikoki emakumeei ebatsi, debekatu zaien hiri espazioaren jabetze ariketa kolektiboa ere suposatzen dute.

Hirigintzan genero ikuspegiaren txertaketak zalantzan jarri ditu herri-antolamenduaren neutralitatea hainbat aspekturen inguruan. Hiriak, kaleak, esparru produktiboari eta bere subjektu pribilegiatuari, hau da, gizonezkoa, heldua, eta bere mugikortasuna garraio pribatuaren menpe duenaren beharrezanez erantzuna emateko diseinatuak, eraikiak eta ordenatuak izan dira. Horregatik, ekipamenduak eta beraien hurbiltasuna (ambulategia, ikastetxea, komertzioak...), garraio publikoa (emakumeek gehiago erabiltzen dutena) edo kale izendegietan emakumeen presentzia sinbolikoa genero ikuspegitik aztertuz gero, argi gelditzen da emakume eta gizonen beharrezanek zenbateraino ez diren neurri berean asetzen.

Segurtasun/segurtasun ezari buruz hitz egitean azpimarratzekoa da hiri antolamenduaren zenbait elementuk emakumeen kontrako erasoak erraztu edota segurtasun faltaren sentsazioa sor dezaketela, eta azken finean, emakumeen mugikortasuna mugatu edo baldintzatu egiten dute.

Arestian azpimarratutako aitzindarietatik aurrera hainbat ekimen jarri dira martxan emakumeen ikuspegitik inseguruak diren puntu edo ibilbideak seinaltzeko. Gure inguruan horien ereduak dira Donostian, Bilbon, Basaurin, Eibarren, Irunen, Zumarragan, etab. egindako hiri debekatuen mapak.

Segurtasuna/segurtasun eza emakumeen ikuspuntutik bideratzeak kalean gertatzen den sexu indarkeriari heltzeko beharrezana planteatzen du, baina baita eraikitako ingurumen/ esparru publikoaren bizipenean genero rolak duten eragina ere. Honekin, emakumeek, jakina, sexu erasoen objektu direla azpimarratu nahi dugu eta honek etengabeko mehatxu erreala suposatzen duela; eraso bat gertatzen denean, inguru hurbilean bereziki, behin eta berriz gaurkotzen den mehatxua.

Baina, aldi berean, emakumeen subjektibitatearen eraikitzean beldurrak eta ondorioz autobabesaren eskakizunak duen paper definitzailea azpimarratu nahi dugu. Emakumeak dira bere burua babesteko/ gordetzeko agindua dutenak, gauean kaletik bakarrik ibiltzea ekiditekoa, etxera bakarrik ez itzultzeko gomendioa dutenak. Azken finean, portaera, ibilbide, toki eta ordutegi ez seguruak ekiditeko mandatuak; arriskua saihesteko, kontua izateko agindua. Eta ondorioz, esparru seguru/ez seguruarekiko bizipena gizonekin alderatuz era desberdinean ematen da edo eman daiteke. Eta honek, modu argian baldintzatzen eta mugatzen du emakumeen mugikortasuna, eta besteekiko dependentzia.

Laburbilduz, emakumeen ikuspuntutik gune ez seguruak, puntu kritikoaren diagnostiko bat aipatutako premisetan oinarritzen da esparru partekatua eta segurua eraikitzeko helburuarekin. Esparru publikoa bizikidetasunerako, partehartzerako eta hartu- emanetarako esparru pribilegiatua den heinean, ez seguru moduan hautemandako guneak eliminatzeak, bideragarritasun kontzeptu zabal baten sakontzea suposatzen duenak.

Egitasmoaren deskribapena

Helburuak

Helburu orokorrak

Oarsoaldeako emakumeentzat esparru publikoarekiko bizipen positiboa sustatu arrisku sentazioa edo seguratsun eza sortzen duten gune kritikoak eliminatuz.

Helburu espezifikoak

1. Oarsoaldeako emakumeei segurtasun falta sortarazten dieten tokiak identifikatzea.
2. Emakumeak esparru publikoarekiko erabiltzaile aditu moduan balioetsi.
3. Udalerriaren inguruko erabakietan emakumeen partehartzea bultzatu.
4. Emakumeei genero ikuspegitik hirigintzaren inguruko formazioa ematea.
5. Lezon emakumeen partehartzerako egitura sortzea bultzatzea.
6. Segurtasun ezaren hautematea desagertarazi/ minimizatu dezaketen proposamen teknikoak jasotzea.

Metodologia

Prozesu partehartzailea eskualdeko herrietan sortutako lan-talde bidez egituratu da. Lezon eta Oiartzunen, biztanle gutxien duten herrietan, lan-talde bat sortu da herri bakoitzeko.

Pasaian, biztanleria eta banaketa geografikoa kontuan izanik, lan talde bi sortu dira. Erreterian hiru izan dira martxan jarritako lan taldeak. Bakoitzean auzo desberdinak aztertu direlarik.

Beraz, guztira zazpi lan talde egin dira, eta modu honetan antolatu dira:

Lezo: talde 1

Erreteria: 3 talde

- Olibet, Zentroa, Iztietia
- Agustinak, Gaztaño
- Beraun, Pontika, Galtzaraborda, Alaberga

Oiartzun: talde 1

Pasaia: 2 talde

- Antxo
- Trintxerpe

Zabalkunde eta bilketa prozesua

Prozesuan ahalik eta partehartzaile gehien bermatzeko helburuarekin hurrengo ekimenak jarri dira martxan:

1. Hedabideak. Egitasmoaren inguruko informazioarekin eta lan taldeetako deialdiekin eskualdeko hedabide garrantzitsuenetara prentsa oharrak bidali dira (Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Oarsoaldeako Hitza, Oiartzun Irratia).
2. Udaletako Web orrialde eta sare sozialak. Parte hartu duten udal guztietako eta Oarsoaldea Garapen Agentziako web orrialdeetan eta sare sozialetan egitasmoaren, bere helburuen eta lan taldeetako daten inguruko informazioa argitaratu da.
3. Udal bakoitzeko berdintasun edo gizarte zerbitzuko arloetatik posta elektronikoen bitartez ohiko kontaktuei bidali zaie proiektuaren eta lan taldeetako daten inguruko informazioa. Oarsoaldeako Garapen Agentziatik proiektua bezero guztien artean zabaldu da.
4. Inplikaturako udaletako berdintasun teknikari zein gizarte langileek talde feminista/emakume taldeekin eginiko batzarretan egitasmoaren inguruko informazioa zabaldu dute.

Lan saioak

Talde bakoitzarekin bi lan saio egin dira. Lehenengo saioan zenbait aspektu teoriko landu dira hausnarketa hirigintza genero perspektibatik kokatzeko helburuarekin. Era berean, esparru publikoan segurtasuna/ez segurtasuna lantzeko irizpideak ezarri dira. Horretarako, besteak beste, " Hiri analisirako

manuala. Genero eta eguneroko bizitza” (Hiria kolektiboa. Eusko Jaurlartza) erabili da.

- Ingurua ezagutzea
- Ikustea eta ikusia izatea
- Entzutea eta entzuna izatea
- Irteera bat beti begi-bistan izatea
- Ingurua garbi eta zaindua egotea
- Espazio publikoan era kolektiboan aritzea

Hasierako hausnarketa hori eta gero, eta bigarren saiora begira, partehartzaileei aipatutako irizpideak kontuan izanik beraien eguneroko espazioak edo espreski saihesten dituztenak aztertzea proposatu zaie. Hausnarketa hau errazteko informazioa jasotzeko fitxa bat eman zaie.

Bigarren saioan parte hartzaileek identifikatutako tokien inguruko ekarpenak jaso dira eta udalerriko mapan kokatu dira. Denen artean puntu bakoitzeko ezaugarriak aztertu eta neurri zuzentzaileak proposatu dira.

Era berean eta lan taldeekin batera, Oarsoaldeako web orrialdean (www.Oarsoaldea.net) ekarpenak jasotzeko aukera eman da. Horretarako web orrialdean informazioa jasotzeko galdetegi bat jarri da.

Puntu ilunak edo puntu kritikoak identifikatu eta gero udal bakoitzeko hirigintzako teknikariekin kontaktu desberdinak izan dira. Horiekin identifikatutako puntu kritikoekiko udalen planifikazioaren inguruko informazioa ezagutu eta berau balorazio teknikoarekin kontrastatzea bilatu da, baita, era berean, hirigintza arloak identifikatutako guneen hobekuntzan inplikatzeko ere.

Oarsoaldea: Arazo nagusiak

Oarsoaldea Gipuzkoaren ipar ekialdean dago, Donostia eta Irun arteko erdibidean. Lau udalerrik osatzen dute Oarsoaldea: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia. Gaur egun 70.701 biztanle ditu.

Eskualdeak Kantauri Itsasoarekin du muga Iparraldetik, eta Nafarroako Arano eta Goizueta herriekin Hegoaldetik. Ekialdetik Hondarribia, Irun eta Lesaka udalerriekin, eta Mendebaldetik Donostia, Astigarraga eta Hernanirekin.

Oarsoaldea leku estrategikoa da bere orografia eta kokapenagatik. Portuko jarduerak industria garapena ekarri zuen, baina gaur egun eskualdeko biztanle gehientsunek zerbitzuen arloan egiten dute lan (biztanleria aktiboaren %60). N-1 eta A-8 errepideek eta trenbideak eskualdea zeharkatzen dute.

Aztertutako udalerriek ezaugarri partekatuak dituzte baina baita oso bestelakoak ere orografia, hirigintza, populazioaren banaketa eta biztanleria kontuan izaten baditugu. Horregatik, komunean dituzten ezaugarriak aipatu orduko, herri bakoitzeko ezaugarri bereizleak azpimarratuko ditugu.

- **Lezo:** eskualdean biztanleria gutxien duen udalerria. Joan den urtean Gaxuxa emakume elkarteak erdiguneko puntu ilunen azterketa egin zuen eta txosten honetan sartu da. Identifikatutako puntu gehienek argiztapen gutxirekin zerikusia dute.
- **Oiartzun:** hedadura zabalena duen udalerria da. 8 auzotan antolatua, biztanlerairen dentsitatea 167,56 bizt/km² da, eskualdekoa 1.075 bizt/km² delarik. Datu hauek argi adierazten dute Oiartzunek duen ezaugarririk esanguratsu eta determinatzaileenetarikoa, biztanlerik gabeko esparru zabalak eta sakabanatutako auzoen arteko bideak.

Auzoen arteko komunikazio bide desberdinak identifikatu dira (bereziki tokiko errepide/ mendi bideak) puntu ilun edo kritiko bezala, argiztapen gabekoak. Proiektu honen xedeak gainditzeko dituen arazo orokor bat dela ulertzen dugu, eta nekez laburtu daiteke puntu ilunen

zerrenda batean. Hala eta guztiz ere, prozesuan zehar aipatu diren tokiak jaso direla esan behar dugu, nahiz eta jakin hauek ez dituztela puntu ilun guztiak agortzen; ikuspegi zabalago batetik (argiztapena, garraioa etab.) heldu beharreko arazo orokorragoen adierazle modura jaso dira.

- **Errenteria:** eskualdean populazio gehien duen herria, biztanleriaren dentsitatea 1.228,24 bizt/km² izanik. Datu hauek etxebizitza pilotze maila altua eta espazio huts gutxiren adierazle argiak dira. Arazorik nabarmenenak erdigunetik urrun dauden gunetan edota hauetara doazen bideetan kokatzen dira.
- **Pasaia:** badiak banatzen dituen 4 auzoz osatua. Trintxerpe eta Pasai Antxo, 6oko hamarkadako garapenaren adierazle, etxebizitza pilotze maila altua/, espazio huts eta berdegune gutxi etab. Identifikatutako arazo asko bere izaera industrialetik ondorioztatzen dira (portu inguruko gunek, pabilioiak etab.)

Herri bakoitzaren ezaugarri hauetatik aparte, badaude udalerri guztietan errepikatzen diren elementuak.

- **Bidegorriak**

Bidegorriak edo beraien zenbait gune puntu ilun edo kritiko bezala identifikatuak izan dira eskualdeko udalerrietan. Horien inguruan toki bakarti eta isolatuak direla eta argiztapen eskasa dutela aipatu da.

Hala eta guztiz ere, herri bakoitzean barne ibilbiderako bideak diren puntu zehatzak salbu, gune hauek kanpo uztea erabaki da, derrigorrezko ibilbideak ez direlako, alternatibak dituztelako edo ibilbide laburragoak ez direlako.

Dena den, beharrezkotzat ikusi da bidegorrien aipamena egitea, asialdirako, kirolerako eta barne mugikortasunerako ibilbide pribilegiatuak direlako.

- **Argiztapena**

Argiztapen eskasa antzematea da gehienetan agertu den arazoa, gehien bat toki bakartiei buruz hitz egitean.

- **Tren geltokiak**

Udalerri guztietan aipatu dira tren geltokiak edo inguruak segurtasun eza sortarazten duten toki bezala. Orokorrean, toki edo ibilbide bakartiei buruz eta zoko ugari dituzten tokiei buruz hitz egiten ari gara.

LEZO

1. Zubitxo Parkeko Arkupeak

Zoko asko eta ezkutalekudun arkupeak. Argiztapema eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Auzokideei arkupeen argiztapena hobetzea gomendatzea proposatzen da.

2. Futbol zelaiaren alboko bidegorri tartea

Berdeguna batek eta futbol zelaiak inguratutako bidegorri tartea da. Futbol zelaiak argiztatua dagoenean argi nahikoa dago, baina bestela argiztapena eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Zuhaitzen inausketa/mantentze-lana proposatzen da, horiek argiztapena nahiko murrizten baitute.

3. Lope de Isasti

Parke zabal batek inguratutako etxebizitzak. Etxebizitzetarako nahiko bakartiak diren pasabide tarteak daude. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

Hemendik aurrera Gaxuxak jasotako tokiak aipatzen dira.

4. San Juan autobus geltoki ondoko pasabidea

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



5. Lezohandia Zuhaitzia

Argiztapen gutxiko gunea.



6. Markesalde Parkea eta Zubitxo Kalea

Argiztapen gutxiko gunea.



7. Auñamendi Kaleko arkupeak

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



8. Caixa ondoko arkupeak

Zokodun gunea, ikuspen gutxikoa eta beldurra eragiten duten pertsonak.



9. Parkea

Argiztapen eskaseko gunea.



10. Atzekoate Kalea

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



11. Eliza ondoko zokoa.

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



12. Polentzarre kaletik Donibane kalerako igoera

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



13. Biribilgune azpiko tunela

Zokodun gunea eta ikuspen gutxikoa.



ERRENTERIA

1. Sarriegi Plaza

GI- 636ko sarrerako biribilgune ondoan kokatzen den plaza. Pasaleku moduan ikusten da eta erabilera gutxi du. Hiri tresneria eskasa du. Toki bakartia, zokoak dituen eta argiztapena eskastzat jotzen da.





PROPOSAMENAK: Errenteriako Udala Beraun Auzoko argiztapena berritzen hasiko da eta Sarriegi Plazari ere eragingo dio.

Bestetik, plazaren erabilera bultzatzeko itxura zainduagoa eta atseginagoa ematea (landareak, bankuak e.a.) proposatzen da.

2. Beraun Kalea

Gaueko argiztapena eskasa dela hautematen da. Tarte bakartiak, komertzio gabekoak eta ezkutalekuak direla eta ikuseremu mugatua duen kalea da.




PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago kale honetan.

Horrez gain zuhaitzen inausketa/mantentze-lana proposatzen da, horiek argiztapena nahiko murrizten baitute.

3. Jesús Guridi kalea

Irteerarik gabeko kalea, argiztapen gutxiko arkupe eta zoko askoko eraikinekin. Argiztapena eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago kale honetan. Bestalde, auzokideei arkupeen argiztapena hobetzea gomendatzea proposatzen da.

4. J.C. Arriaga Kalea

Irteerarik gabeko kalea, hasierako tartea zuhaitzi txiki batek inguratua kaleko bi aldeetan, garajez beteriko beste tarte batek jarraitzen duelarik. Argiztapen gutxiko arkupeak kale bukaeran eta irteerarik gabeko aparkalekua. Toki bakarti moduan hautematen da, ikuseremu mugatua (zuhaitzak, zabor- edukiontziak, arkupeak) eta argiztapen gutxikoa.



PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago kale honetan.

Horretaz gain zuhaitzen inausketa/mantentze-lana proposatzen da, adarrak espaloia hartzen baitute.

5. Luis Mariano Plaza


Argiztapena eskasa dela hautematen da. Zokoak ditu.



PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago kale honetan.

6. Beraun-Pontikarako Bidegorria


J.C.Arriaga eta Jesús Guridi kaleen bukaeran kokatzen da bidegorriaren hasiera eta Beraunetik Pontikara joateko erabiltzen da. Gaueko argiztapena eskasa dela hautematen da, toki bakartia eta ikuseremu mugatua.



PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago gune honetan. Horretaz gain, zuhaitzen inausketa/mantentze-lana proposatzen da.

7. Mikel Zabaletatik lantzirako eskailerak


Eskailera-atal luze eta bakartia argiztapen gutxirekin. Alde batean lorategi/arboladi gunea eta bestean eraikin bat.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

8.Galtzarabordako Topotik Geralekua kalerarteko pasabidea

Argiztapena eskasa dela hautematen da, toki bakartia eta zokoak.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

9. Galtzaraborda Etorbidea

Errenteriako hainbat gunek zeharkatzen duen etorbidea. Argiztapena eskasa dela hautematen da, bereziki Aizkorri Plaza eta Monroy Plaza artean. Beraunetik eta Pontikatik erdigunera iristeko erabiltzen da. Berezi bakartiak diren tartek daude, esaterako Koldo Mitxelena ikastetxearen parean igarotzen dena.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Egun berezietan (herriko jaiak, inauteriak, Gabonak e.a.) gauean autobusa jartzeko aukera aztertu.

10. San Isidro Ansoarena Kalea

Kalea eta aparkalekua. Argiztapena eskasa dela hautematen da, bakartia (lantegiak eta garajeak) eta hainbat zoko.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

Bestalde, auzokideei arkupean argiztapena hobetzea gomendatzea proposatzen da.

11. San Markos kaleko 10-12 bitartean dauden aparkalekuak



Eraikinaren atzealdean dauden aparkalekuak, aldapan dagoen berdeguneak inguraturik. Toki bakartia, argiztapena eskasa dela hautematen da, hainbat zoko. Ondoan futbol zelaia dago eta erabiltzen denean indar handiko fokoek aparkalekua argiztatzen dute. Futbol zelaia erabiltzen ez denean, aparkalekuko argia eskasa da.



PROPOSAMENAK: argien berriztapena kontenplatuta dago gune honetan.

12. San Markos Bidea

Langaitz ikastolarako biribilgunea. Donostiako tartea da baina Errenteriako auzokideek erabiltzen dute. Autopista gainetik pasatzen den tarte bakarti eta gutxi argizatua du.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

13. Iztietaiko Pasealekua

Gune bakartia, zokoekin. Ekiditen den inguru ez seguru moduan hautematen da.



Inguruan zenbait toki azpimarratzen dira:


- **13.1. Lezo-Iztieta-Ondartxoko zubia**

Gaueko argiztapena eskasa dela hautematen da, bereziki zubian bertan. Zaindu gabeko tokiak. Zubi azpitik igarotzen den ibilbidea toki ez segurua, bakartia eta argiztapen gutxi duela hautematen da.



- **13.2. Lezo/Iztieta-Ondartxoko eskailerak**

Zubia Errenteria eta Lezo lotzen dituen eskailera- tarte batekin elkartzen da. Eskailera horma batzuez inguratua dago toki bakartian. Ikuseremua mugatua da eta argiztapen gutxi duela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea, zubia argiztatzea eta ingurua zaintzea.

14. Antzinako hiltegia eta atzealdeko aparkalekua

14. 1. Antzinako hiltegiaren ingurua

Toki bakartia, ezkutalekuak eta argiztapen eskasa.



- **14.2. Aintzinako hiltegiaren aparkamentua**

Toki bakartia, horma zahar batez inguratua. Tokitik ateratzeko irteera bakarra dago.



PROPOSAMENAK: hiltegiaren inguruko argiztapena hobetzea eta aparkalekuaren mantentzea.

15. Amasas Kalea

Hiltegiaren atzealdean kokatzen da. Kale bakartia; alde batean garaje eta lantegi txikiak daude eta bestean errepidearen horma kokatzen da. Espaloiaren argiztapena eskasa dela hautematen da.




PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

16. Errenteria Topoaren ingurua

- Gaztainorako igoera

Topoaren geltokitik Gaztaino auzora igotzeko zuhaitzi batez inguratua dagoen eskailera-atal bat dago. Toki bakartizat jotzen da, isolatua, ezkutalekuekin, ikuseremua mugatua delarik. Argiztapena eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

Horretaz gain zuhaitzen inausketa/mantentzea gomendatzen da.

17. Antontxu Sanz Plazatxo

Plaza eta etxeetarako sarreran hainbat zoko, ikuseremu mugatua, zaindu gabea eta bakartia den inguruan. Alde batean trenbidea dago.



PROPOSAMENAK: etxe-jabeen elkarteari ispiluak kokatzeko gomendioa helaraztea. Plazaren argiztapena hobetzea gune opakuak ekiditeko.


18. Alaberga Auzoa

Alaberga auzoko argiztapena, orokorrean, eskastzat jotzen da. Hainbat tarte/gune bakarti dituen auzoa, komertziorik gabe eta zoko ugari.

Bereziki segurtasun eza sortarazten duten tokiak aipatzen dira.

19. Nafarroa Etorbidetiko igoera

Igarobide bakartiko ibilbidea, hainbat zoko eta etxerik gabeko tartek.



PROPOSAMENAK: argiztapena artertzea.

20. Alabergako "basotxo". 41. Zenbakian dagoen bidexka

Argiztapen eskasa (farola zaharkituak, argiztapena gutxitzen duten zuhaitz adarrak eta belardia) , zikinkeria eta hainbat zoko itzulingurua ekiditeko lasterbide modura erabiltzen den espazioan.




PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

Horretaz gain, zuhaitzen inausketa/mantentzea proposatzen da, horiek argiztapena nahiko murrizten baitute.

21. Alabergatik Toporako bidea. Aiako Arria Kalea

Hainbat zokodun ibilbide bakartia. Ez da tarte luzea baina horma eta ikastetxeko patioaren artean igarotzen da. Nahiz eta argiztapen indartsua egon gune ilunak sortzen dira eta ezkutalekuak (autoak, zabor-edukiontzia, eskailerak) direla eta segurtasun eza sortarazten duen tokia da.



PROPOSAMENAK: inguruko argiztapena eta kamarak jartzeko aukera aztertzea.

22. Alabergako goialdea (Telefonica ingurua)

Etxebizitza gunea, tarte bakarti luzeekin. Ez dago komertziorik. Argiztapena eskasa dela hautematen da hainbat ezkutaleku (zuhaitzak, eskaierak) dauden tokian.



PROPOSAMENAK: argiztapena aztertzea.

OIARTZUN

1. Arragua eta Lintzirin arteko zubi azpiko pasabidea.

Arragutatik zentro komertzialetara joateko erabiltzen den bidegorri tartea. Egunez trafiko handiko gunea.



PROPOSAMENAK : argiztapena aztertzea gomendatzen da.

2. Topoaren irteera

Ezkerraldean ikuseremu mugatua, esparru zabal batera iristen da, non urruti eta arkupe ilunak dituzten etxebizitzak dauden. Inguruko argiztapena eskasa den pertzepzioa dago, nahiz eta zubi azpiko egiturak foku asko dituen.




PROPOSAMENAK: ingurua zaintzea eta ikuseremua zabaltzea, ezker aldeko itxidura kenduz. Inguruko argiztapena aztertzea gomendatzen da.

3. Aparkalekuak

- 3.1. Lur azpiko aparkalekuak

Orokorrean, lur azpiko aparkalekuak segurtasun eza sortarazten duten eta askotan ekiditen diren espazioak dira. Toki bakarti, zokoz beteriko moduan ikusten dira eta, behar izanez gero, laguntza eskatzeko aukerarik ez dago.

Orokorrean, argiztapena eskasa dela hautematen da.



Landetxe. Kamarak ditu



Beheko Plaza



Euskal Herria

PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea eta ispilu eta dei-txirrinak jartzeko aukera aztertzea.

- **3.2. Aire zabaleko aparkalekuak**

Aire zabaleko aparkalekuen artean bereziki Haurtzarokoa, polikiroldegikoa eta Euskal Herria Plaza eta GI-2134 bitartean daudenak aipatzen dira.



GI- 2134 Alboan



Polikiroldegia

PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

4. Oretako bidea

Arragua eta Elizaldea batzen dituen bidea. Oinezkoentzako espaloia duen arren oso bakartiak diren tarteak ditu eta argiztapena eskastzat jotzen da. Auzo biak elkartzen dituen bidea argiztapen gabeko mendi-bidea da (Arizabalo).





PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

5. San Esteban Elizaren ingurua

Segurtasun eza sortarazten duten hainbat toki aipatzen dira San Esteban Elizaren inguruan. Orokorrean, zoko asko eta ezkutalekuak dituzten argiztapen gutxiko espazioak hautematen dira.

- 5.1.Landetxe Plaza. Goialdean


Plazaren goialdea, jubilatuen egoitza dagoen tokia. Zuhaitz eta zuhaixka ugari parketxoak, laranja tonudun argiztapena eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

- 5.2. Labaderoa


Espaloian kokatzen den antzinako labaderoa, autoak pasatzen diren aldameneko bidea saihesteko erabiltzen da. Barrualdeko argiztapena eskasa da, kaletik datorrena baita.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

- **5.3. Ibagain parkea.**


Parke zabala eta zuhaiztia, argiztapen ahul eta laranja kolorekoa.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Noizbehinkako zaintza.

- **5.4. Kontzejuerreka kalea**

Elorrondotik Kontzejupe Plazara doan bidexka. Nahiko luzea eta bakartia den tarte, Ibagain parkearen aldamenean. Argiztapena eskasa da eta ingurutik dator, hau da, bidexkan ez dago farolarik.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

6. Larrezabaleta kalea

Arruagako soziedadetik gora doan bidea. Tarte bakartia da eta autopistaren zubi azpitik pasatzen da. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Zuhaitzen inausketa/mantentzea.

7. Igerobide Bidea

Bide bakartia, zuhaitzez beteriko tarte zabalak. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena aztertzea.

8. Katalintxo Bidea


Hormigoizko hormaz inguraturiko bidexka. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Argiztapena murrizten duten zuhaitzen inausketa/mantentzea.



9. Elorrondo kalea

Elorrondo kalean argiztapena eskasa dela hautematen da. Polikiroldegiaren inguruan hainbat zoko dituen lorategi espazio bat dago, horien artean zenbait eskailera-atal daudelarik. Zuhaitzen adarrek farolen azgiztapena nahiko murrizten dute.



- **9.1. Escaleras de la calle Elorrondo kaleko eskailerak**



Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Argiztapena murrizten duten zuhaitzen inausketa/mantentzea.

10. Altzibarretik Iturriotzerako bidea

Oinezkoentzako espaloia dago baina ez dago argiztatua. Auzo batetik bestera igarotzeko modurik zuzenena da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

11. Altzibarretik Elizalderako igoera.


Altzibarretik Elizalderako igoera, Polikiroldegi ingurua, bidegorriaren parte da eta auzo bien artean mugitzeko erabiltzen da. Argiztapen eskasa hautematen da zuhaitz inguratutako tarte bakartian.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

12. Erriondo bidea

Tarte bakartiak dituen bidea. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

PASAIA

TRINTXERPE

1. Autobus geltokia eta pasabidea

Toki isolatu eta bakartia. Errepidearen albotik doan tarte bat zeharkatu behar da eta gero hainbat zokodun tartea portuko zonaldean. Ingurua, orokorrean, behar bezala zaindu gabekoa.



PROPOSAMENAK: autobus geltokia herrira eramatea. Ingurua zaintzea eta kamarak jartzeko aukera aztertzea.

2. Erretereria Kalea eta Ulia Etorbidea bitarteko eskailerak


Maldaz beteriko kaleetan eskailerak Erretereria kaletik Ulia Etorbidera joateko lasterbidea dira, ibilbide luzeagoak ekiditeko modua. Hala eta guztiz ere, eskailera-atalak zaindu gabeko inguruan daude (baranda apurtuak, egoera txarrean dauden eskailera-mailak) , sasitza eta hainbat zokodun inguruan. Ikuseremua mugatua da eta gauean argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Ingurua zaintzea eta garbitasuna hobetzea. Zuhaitzen inausketa/mantentzea.

3. Igogailuak

Trintxerpeko beheko eta goiko aldeko irisgarritasuna eta mugikortasuna errazteko hainbat igogailu daude. Eskaileren alternatiba izango lirateke baina maiz hondatuta daudelako ezin direla erabili aipatzen da, baita duten mantenimendua eta garbitasuna eskasak direla ere. Horretaz gain, eta bereziki Erreterria kaletik Ulia Etorbidera eta Euskadi Etorbidetik Andonaegi Kalera doazenen inguruan beldurra eragiten duten pertsonak egoten direla aipatzen da.



PROPOSAMENAK: ingurua zaintzea eta garbitasuna hobetzea. Kamarak jartzeko aukera aztertzea.

4. Karmengo Ama Ikastetxearen atzealdea

Euskadi Etorbidetik igotzen den igogailuaren irteera. Toki bakartia, futbito zelaia eta ikastetxearen atzeko patioak inguratua. Iluntzetik aurrera jende gutxi egoten da inguruan. Argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: azgiztapena aztertzea. Kamarak jartzeko aukera aztertzea.

5. Herrerako Topoaren sarbidea

Nahiz eta Topoaren geralekua Donostian egon, Trintxerpeko biztanleriaren zati handi batek geltoki hau erabiltzen du, hurbilena delako. Geltokirako ibilbidea Trintxerpe eta Portutik egiten da. Ibilbide isolatua, bakartia da, industri pabilioiak zeharkatuz egiten dena, zoko eta zikinkeriaz betea. Azkeneko tarteak behin-behineko itxidura bat du eta honek ikuseremua mugatzen du. Gaueko argiztapena eskastzat jotzen da.





PROPOSAMENAK: Ingurua zaintzea. Azken tartean sarbide zuzena egitea. Kamarak jartzeko aukera aztertzea.

PASAI DONIBANE

7. Santiago Plazatik eskailera- tartea

Hainbat dira Donibane kaletik ateratzen diren eskailera-atalak etxeetara eta Santa Ana elizara doazenak. Batzuek ez dute eskubandarik eta harzola urria du. Zokoak daude eta argiztapen eskasa hautematen da. Era berean, Donibane Kalearekiko ezkutalekuak dira.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Eskubandak jarri/konpontzea.

8. Eliza aldameneko pasabidea

Eliza eta Juan XXIII kaleko hormaren artean dagoen bidexka estua. Nahiz eta zenbait farola dituen ekiditen den bidexka da.



PROPOSAMENAK: kamerak jartzeko aukera aztertzea.

9. Lurdes Txiki Kalea

Zuhaizti batek inguratua dagoen eskailera-atal batetik iristen da. Kale bakartia eta zokoz betea; autoak aparkatzen dituzten arkupeak ditu. Juan XXIII, eliza ingurua, eta zuhaizti inguruko sarbidean argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Zuhaitzen inausketa/mantentzea.

10. Juan XXII Kalea

Kale hasierako tartea parke txiki batez inguratua dago. Argiztapen eskasa duen eta toki bakarti moduan hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

11. Frontoiaren aurreko aparkalekua

Aparkalekua berria eta zaindua egon arren, sarbidea kale bakarti batetik egiten da, etxerik ez komertziorik ez duena. Gainera, barrualdea eta kanpoaldea argi ikustea eragozten duen horma batek inguratzen du aparkalekua.




PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea. Kamarak jartzeko aukera aztertzea.

PASAI ANTZO

12. Toyota lantegi inguruko aparkalekua


Aparkaleku modura erabiltzen den zelaigunea. Toki isolatua, etxebizitzetatik eta komertzioetatik urrun eta ez oso zaindua. Eraikinaren barrualdea argiztatua ez dagoenean ingurukoa eskasa dela hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

13. Gelasio Aranburu Kalea

Errekarekiko paraleloki doan kalea. Nahiko ibilbide bakartia, zokoekin eta komertziorik gabekoa. Eraikinetako behealdeak garaje eta lantegiek okupatzen dituzte. Argiztapen eskasa hautematen da zenbait tartetan.





PROPOSAMENAK: argiztapena aztertzea bereziki zenbait tartetan, Topoaren zubiaren inguruan, adibidez.

14. RENFEko Geltokia


Sarbidea eta nasa toki bakarti eta isolatu moduan hautematen dira.



PROPOSAMENAK: RENFEri kamarak jartzeko eskatzea.

15. Topoaren arkupeak

Nahiz eta lasterbideak diren gutxi erabiliak dira. Zokoz beteriko gunea eta nahiko zikina (pintadak, pixa).



PROPOSAMENAK: zonaldea zaintzea eta mantentze-lanak egitea. Zenbait tartetako argiztapena aztertzea.

Sarbideetan kamarak jartzeko aukera aztertzea.

16. Eskalantegiko eskailerak


Bi eskailera-atal daude, bat La Anunciatarara igotzeko eta bestea Biteri Plazaren inguruan. Bietan daude zokoak eta argiztapen eskasa hautematen da.



PROPOSAMENAK: argiztapena hobetzea.

17. Molinaorako Bidea

Ibilbide luze eta bakartia, eta argiztapen eskasa zenbait tartetan.



PROPOSAMENAK: argiztapena aztertzea.